




OBSERVATORIO DEL TRANSPORTE
DE EUSKADI

EUSKADIKO GARRAIOAREN
BEHATOKIA



Panorámica del Transporte en Euskadi

Euskadiko Garraioaren Panoramika

2006

ELSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GARRAIO ETA
HERRI LAN SAILA

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PÚBLICAS



AURKIBIDEA

Orrialdea

1. ESPARRU OROKORRA.....	2
1.1. GARRAIOA EKONOMIA-JARDUERAKO SEKTORE GISA	2
1.1.1. Garraio- eta komunikazio-sektorea.....	2
1.1.2. Garraio-sektorea EAEn	3
1.2. LEGE-BERRIKUNTZAK: 2006AN EUROPAN, ESPAINIAN ETA EAE-N	11
1.2.1. Europako lege-berrikuntzak.....	11
1.2.2. Espainiako lege-berrikuntzak	15
1.2.3. EAEko legegintza-berrikuntzak.....	15

TAULEN AURKIBIDEA**Orrialdea**

1.1 Taula.	Garraio-sektorearen magnitude orokorrak. EAE. 2006	5
1.2 Taula.	Garraio-sektoreko establezimenduak, lanpostu-segmentuaren eta jarduera motaren arabera (%). EAE. 2006	6
1.3 Taula.	Garraio-sektoreko establezimenduak, izaera juridikoaren eta jarduera-motaren arabera (%). EAE. 2006	7
1.4 Taula.	Garraio-sektoreko establezimenduak, jarduera-motaren eta lurralde historikoaren arabera. EAE. 2006	8
1.5 Taula.	Ibilgailuentzako gasolioaren nazioarteko kotizazioaren bilakaera (2005-2006) ¹	9
1.6 Taula.	KPI EAEn, taldeka (2006)	9
1.7 Taula.	Industriako prezioen indizea EAEn, jarduera-motaren arabera (2006)	10

GRAFIKOEN AURKIBIDEA**Orrialdea**

1.1 Grafikoa	Garraio- eta komunikazio-sektorearen ekarpena EAeko BEGan eta lanpostuetan: 1995-2006 Bilakaera (%)	3
1.2 Grafikoa	Garraio-sektorearen ekarpena EAeko eta beste herrialdeetako BEGean eta lanpostuetan (%). 2002.	4
1.3 Grafikoa	Garraio-sektoreko BEGaren banaketa EB-25ean, azpisektoreen arabera (%). 2002	5

1. ESPARRU OROKORRA

1. ESPARRU OROKORRA

1.1. GARRAIOA EKONOMIA-JARDUERAKO SEKTORE GISA

1.1.1. Garraio- eta komunikazio-sektorea

Espainiako Jarduera Ekonomikoen Sailkapeneko A31 sektore-banaketan, garraioaren jarduera "garraio eta komunikazio"¹ sektorean sailkatzen da. Atal honetan, sektore handi horren magnitude nagusiak laburtzen dira, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) jasotako azken datuetan oinarrituta. Datu horien arabera:

- o 2006an, EAEko garraio- eta komunikazio-sektorean, **15.154 establezimendu** ari dira **jardunean**. Bolumen hori,
 - Aurreko urtearekin alderatuz, %0,6 hazi egin da. Elementu konparatibo gisa, euskal ekonomian, establezimendu-kopurua %2,6 handitu da.
 - 1995eko erregistroko datuen hirukoitza da (%198,1 handitu da). Datu horrek agerian uzten du garraioaren sektorean ekonomia osoan baino gehiago hazi dela establezimendu-kopurua. Izan ere, ekonomia orokorrean, 1995az geroztik, establezimendu-kopurua %35,2 bakarrik handitu da.
 - EAEko ekonomiako establezimenduen %8,1 dago haren barnean, eta horrek esan nahi du aurreko urtearekin alderatuz sektoreak garrantzia galdu duela, sektoreak establezimenduen %8,3 baitzuen. 1995ean, ehuneko hori %3,7 besterik ez zen.
- p 2006an, sektore horren barnean, **49.851 pertsonak egiten zuten lan**. Horrek esan nahi du:
 - Azken urtean, sektoreko langile-kopurua %12,1 handitu dela, ekonomia osoan baino askoz ere gehiago (%3,1).
 - 1995az geroztik, sektoreko langile-kopurua bikoiztu egin dela (%99,8 areagotu da), eta ekonomia osoan, berriz, langile-kopurua %39 handitu dela.
 - 2006an, sektore horretako lanpostuek garrantzi handiagoa izan dute ekonomia orokorrean (%5,7; eta 2005ean, %5,6). 1995ean, ehuneko hori %3,9 zen.
- p 2005ean², sektoreak **3.719.128 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (BEG)** sortu zuen. Hau da,


¹ Horren barnean daude JESN 60 (lehorreko garraioa), 61 (itsas garraioa), 62 (aireko garraioa), 63 (garraioaren jarduera gehigarriak) eta 64 (komunikazioak), JESN-93ren barnean bilduak.

² 2005eko datuen aurrerapena. Ez dago Balio Erantsiari buruzko 2006ko daturik.

- 2004arekin alderatuz, %6,5eko hazkuntza izan du, EAEko ekonomiak izandako hazkuntza (%7,6) baino txikiagoa.
- 1980. urtearekin alderatuz, %137,9ko hazkuntza izan du, EAEko ekonomiak izandako hazkuntza (%119,5) baino handiagoa.
- BEG osoaren %7,2 dakar sektoreak (2004an %7,3; eta 1980an, %6,7).

Ondorengo grafikoan azaltzen da azken hamarkadan garraio- eta komunikazio-sektoreak EAEko BEGan eta lanpostuetan egindako ekarpena nola bilakatu den. Grafiko horren arabera, sektoreak garrantzia ekonomiko handiagoa eskuratu du, eta lanpostu gutxiago sortu ditu.

1.1 Grafikoa Garraio- eta komunikazio-sektorearen ekarpena EAEko BEGan eta lanpostuetan: 1995-2006 Bilakaera (%)



* Ez dago 2006ko BEGari buruzko datuak.

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta DIRAE). GIS- Garraioaren Informazio Sistema (OTEUS) Erakundeak berak egindako txostena.

Adierazlea eranskinean azaltzen da zehaztasun handiagoz

1.1.2. Garraio-sektorea EAEn

a) Garraio-sektoreko ekonomia-magnitude nagusiak

Garraio-sektoreari dagokionez, Eustatek jasotako datuak oinarritzat hartuz, hau esan daiteke:


- ρ 2006an, **14.352 establezimendu** zeuden sektorearen barnean.
- ρ Establezimendu horietan, **42.331 pertsona** ari dira lanean, guztira.
- ρ 2005ean, sektoreak **2.424,8 milioi euroko Balio Erantsi Gordina** sortu zuen.

Beraz, urte arteko datuen arabera, 2006an sektoreko establezimendu- eta lanpostu-kopuruek gora egin dute (%0,1 eta %1, hurrenez hurren), baina, ekonomia orokorra baino gutxiago hazi denez, garrantzia galdu du.

Hain zuzen ere, garraio-sektoreak 2006ko EAEko ekonomiako **establezimenduen %7,7** biltzen du (%7,9 2005ean), baita **lanpostu guztien %4,8** ere (%% 2005ean). Bestalde, garraio-sektoreak ekonomia osoko GEBaren %4,7 sortu zuen 2005ean.

Proporzio horiek **ia ez dute alde handirik Espainiako edota beste europar ekonomia bateko datuekin alderatuta**, ondorengo grafikoak azaltzen digun bezala. Grafiko horrek garraio-sektoreak herrialde bakoitzeko ekonomian duen garrantzia zehazten digu, bai sortzen duen aberastasunari bai lanpostu-kopuruari dagokionez. BEGari dagokionez, Danimarka (%6) eta Frantzia (%3,2) dira aipagarriak, aztertutako gainontzeko herrialdeek %4-4,5 arteko proporzioak baitituzte. Lanpostu-kopuruari dagokionez, datuak berdintsuak dira: kopuru handiena Danimarkak du (%4,9), eta txikiena, berriz, Alemaniak (%3,6).

1.2 Grafikoa Garraio-sektorearen ekarpena EAEko eta beste herrialdeetako BEGean eta lanpostuetan (%). 2002.



(1) 2000. urteko datuak dira.

(2) Lanpostuei buruzko datuen barruan ez daude itsasoko eta aireko garraioak sortzen dituen lanpostuak.

Iturria: Garraio Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza) eta Structural Business Statistics (Eurostat). Erakundeak berak egindako txostena.

EB-25 osoan, 2002. urtean, garraio-sektoreak ia 8,2 milioi pertsonari eman zien lana, eta pertsona horiek 337,3 mila milioi euroko aberastasuna sortu zuten guztira.

Jarduera-azpisektorearen arabera

Errepideko garraioak jarduera ia osoa betetzen du, garraio-mota horrek aipatutako hiru adierazleetan duen garrantziak argi utzi duen bezala: establezimendu-kopurua, lanpostu-kopurua eta ekoizpena. Zehatzago esanda, 10 establezimendutik 8, 10 lanpostutik 6 eta garraio-sektorean sortutako aberastasunaren erdia errepideko garraioak sortzen du.

1.1 Taula. Garraio-sektorearen magnitude orokorrak. EAE. 2006

	Establezimenduak		Lanpostuak		BPG ¹	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Mila euro	%
Trenbide-garraioa	78	0,5	2.622	6,2	153.196	6,3
Lehorreko gainontzekoa	12.184	84,9	26.103	61,7	1.279.414	52,8
Itsas garraioa	37	0,3	412	1,0	59.233	2,4
Aireko garraioa	18	0,1	384	0,9	58.213	2,4
Eranskinak ²	2.035	14,2	12.810	30,3	874.786	36,1
Guztira	14.352	100,0	42.331	100,0	2.424.842	100,0


(1) 2005. urteko datuak dira.

(2) Merkantziak manipulatu eta biltzeko jarduerak, aparkalekuen kudeaketa, bidaiaria-agentzien kudeaketa, turismo handizkari eta txikizkariak eta turismo-esparruko beste jarduera gehigarriak, merkantzien garraioaren antolakuntza-jarduerak (aduanak-agentzietan, merkantziak pisatu eta paketatzen enpresak eta abar).

Iturria: Eustat. GIS- Garraioaren Informazio Sistema (OTEUS) Erakundeak berak egindako txostena.

Adierazlea eranskinean azaltzen da zehaztasun handiagoz

Errepideko garraioaren azpisektoreak duen garrantzia orokorra da EB-25 osoan, baina, Europan, hein txikiagoan gertatzen da (EB-25ean, azpisektore horrek GEBaren %38,8a osatzen du). Horrez gain, **EB-25ean**, datu hori **sektore-banaketa orekatuago eta iraunkorragoarekin** batera doa, trenbide-garraioak eta itsasoko garraioak garrantzi handiagoa baitute (EB-25ean, GEBaren %11,3 eta %4,9 sortzen dute; eta EAEn, berriz, %6,3 eta %2,4; hurrenez hurren).

1.3 Grafikoa Garraio-sektoreko BEGaren banaketa EB-25ean, azpisektoreen arabera (%). 2002

Iturria: Eurostat. Structural Business Statistics.

Enpresen tamainaren eta izaera juridikoaren arabera

Garraio-sektorean, **establezimendu gehienek tamaina txikia** dute. 2006an, EAeko garraio-sektoreko establezimenduen %94,5ek 10 langile baino gutxiago zituen, eta %83,6k 3 langile baino gutxiago. Errealitate hori errepideko garraioan islatzen da batez ere, establezimenduen %89,4 gehienez bi langilek osatzen baitute.

Aurreko urteko datuekin alderatuz, establezimendu txikiak garrantzia galdu dute, eta establezimendu handiagoek, berriz, garrantzi handiagoa eskuratu dute (bereziki 10 eta 19 langile artekoak).

1.2 Taula. Garraio-sektoreko establezimenduak, lanpostu-segmentuaren eta jardura motaren arabera (%). EAE. 2006

(%)

	Trenbide-garraioa	Lehorreko gainontzekoa (1)	Itsas garraioa	Aireko garraioa	Eranskinak	Guztira
0-2	15,4	89,4	32,4	27,8	53,4	83,6
3-9	50,0	7,2	37,9	27,8	30,8	10,9
10-19	14,1	2,3	16,2	16,7	9,7	3,4
20-49	6,4	0,9	5,4	16,7	4,3	1,5
50-99	3,8	0,1	8,1	5,5	1,0	0,3
=>100	10,3	0,1	-	5,5	0,8	0,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

(1) Errepideko garraioa eta hobi bidezko garraioa barne.

Iturria: Jardura Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat). GIS- Garraioaren Informazio Sistema (OTEUS) Erakundeak berak egindako txostena.

Emaitzak eta establezimenduen izaera juridikoa ikusita, logikoa da establezimendu gehienek autonomoen erregimenean lan egitea (%77,3), baina, azken urtean, garrantzia pixka bat galdu du formula horrek (2005ean %77,8). Sozietate mugatua da bigarren forma juridiko erabiliena (%13,3), sozietate anonimoarekin batera (%7,7). Azken formula horrek garrantzia handiagoa du aurreko urtearekin alderatuta.

Lanpostuei dagokionez, sozietate anonimoaren formula da aipagarriena, sektoreko lanpostuen %35,5 sortzen baitu. Jarraian, autonomoak daude (lanpostuen %31,3 sortzen dute) eta, ondoren, sozietate mugatuak (lanpostuen %25,4 sortzen dute).

1.3 Taula. Garraio-sektoreko establezimenduak, izaera juridikoaren eta jardueramotaren arabera (%). EAE. 2006

(%)

	Trenbide-garraioa	Lehorreko gainontzekoa (1)	Itsas garraioa	Aireko garraioa	Eranskinak	Guztira
Establezimenduak						
Pertsona fisikoa	0,0	88,0	13,5	5,6	17,4	77,2
Sozietate anonimoa	74,4	2,0	29,8	77,7	38,4	7,7
Sozietate mugatua	3,8	9,2	48,6	16,7	38,0	13,3
Bestelako sozietateak	5,1	0,2	2,7	0,0	2,6	0,5
Ondasun-erkidegoa	0,0	0,1	5,4	0,0	1,2	0,3
Besteak	16,7	0,5	0,0	0,0	2,4	0,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Lanpostuak						
Pertsona fisikoa	0,0	49,0	1,9	(*)	3,6	31,3
Sozietate anonimoa	55,8	23,2	56,8	97,1	53,6	35,5
Sozietate mugatua	1,7	25,8	38,3	2,6	29,8	25,4
Beste sozietateak	31,4	0,2	(*)	0,0	3,3	3,1
Ondasun-erkidegoa	0,0	0,1	1,2	0,0	0,3	0,2
Besteak	11,1	1,7	0,0	0,0	9,4	4,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

(1) Errepideko garraioa eta hobi bidezko garraioa barne.

(*) Eustatek ez du datua eman, estatistika-sekretua gordetzeko. Kopuru osoan kontuan hartzen da.

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat). GIS- Garraioaren Informazio Sistema (OTEUS) Erakundeak berak egindako txostena.

Lurraldeka

Establezimenduak eta sektoreko lanpostuak lurralde historikoen arabera aztertzen badira, badira zenbait alde.

1.4 Taula. Garraio-sektoreko establezimenduak, jarduera-motaren eta lurralde historikoaren arabera. EAE. 2006

(kopurua eta %)

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Establezimenduak								
Trenbide-garraioa	1	1,3	55	70,5	22	28,2	78	100,0
Lehorreko gainontzekoa (1)	1.502	12,3	6.406	52,6	4.276	35,1	12.184	100,0
Itsas garraioa	-	-	27	73,0	10	27,0	37	100,0
Aireko garraioa	7	38,9	10	55,5	1	5,6	18	100,0
Eranskinak	236	11,6	1.123	55,2	676	33,2	2.035	100,0
GUZTIRA	1.746	12,2	7.621	53,1	4.985	34,7	14.352	100,0
Lanpostuak								
Trenbide-garraioa	(*)	(*)	2.054	78,3	560	21,4	2.622	100,0
Lehorreko gainontzekoa (1)	3.568 eta (*)	13,7 eta (*)	13.117 eta (*)	50,3 eta (*)	9.400	36,0	26.103	100,0
Itsas garraioa	-	-	382	92,7	30	7,3	412	100,0
Aireko garraioa	50	13,0	314	81,8	-	-	384	100,0
Eranskinak	1.972	15,4	6.874	53,7	3.984	30,9	12.810	100,0
GUZTIRA	5.560	13,3	22.741	53,7	13.974	33,0	42.331	100,0

(1) Errepideko garraioa eta hobi bidezko garraioa barne.

Iturria: DIRAE (Eustat). GIS- Garraioaren Informazio Sistema (OTEUS) Erakundeak berak egindako txostena.

[*Adierazlea eranskinen azaltzen da zehaztasun handiagoz*](#)

Bizkaia da aipagarriena, 2006an sektoreko establezimendu eta lanpostuen erdia baino gehiago bildu dituelako (%53,1 eta %53,7, hurrenez hurren). Jarraian, Gipuzkoa dugu, %34,7 eta %33ko proportzioak baititu, hurrenez hurren. Azkenik, Arabak ditu establezimendu eta lanpostu gutxien.

2005. urteari dagokionez, aurreko urteetako joerari jarraituz, Bizkaiak garrantzi handiagoa eskuratu zuen; eta Arabak, berriz, garrantzia pixka bat galdu zuen.

b) Prezioen bilakaera

2006an, **petrolioaren prezioa askoz ere mantsoago igo** da, eta **euroa indartsu agertu da dolarrarekiko alderatuta**. Horren ondorioz, erregaien prezioa askoz ere mantsoago garestitu da, batez ere europar esparruan. Hala, 2006an, *Brent* upelaren prezioa %17,9 igo da (%43 2005ean). Horren ondorioz, ibilgailuentzako erregaiaren nazioarteko kotizazioa igo egin da, baita berunik gabeko gasolinarena ere, %10,3 eta %15,3 hurrenez hurren (2005ean, %48,3 eta %33,7, hurrenez hurren). Tasa horiek argi uzten dute igoera aurreko urtekoa baino askoz txikiagoa izan dela.

1.5 Taula. Ibilgailuentzako gasolioaren nazioarteko kotizazioaren bilakaera (2005-2006)¹

	2005	2006	σ 05/06
Ibilgailuentzako gasolioa	36,17	39,88	10,3
Berunik gabea	31,73	36,57	15,3
Brent	27,68	32,64	17,9

¹ Unitatea: Euro-zentimo litroko.

Iturria: Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa

2006an, petrolioaren prezioa mantsiago igoenez, inflazioaren presioa ere baretu egin da. Hala, 2006an, kontsumo-prezioen indizea %2,6 hazi da EAEn, eta aurreko urtean, berriz, %3,7 hazi zen. 2005. urtean ez bezala, **garraioen taldeak ez du izan ez da inflaziorik handiena**. Hain zuzen ere, prezioak batezbestekoaren azpitik igo dira, urte arteko %1,6 bakarrik.

Euroaren eta dolarraren arteko parekotasunari esker ere, prezioak ez dira horrenbeste igo. Batez beste, euro batek 1,256 dolar balio izan du 2006an; eta trukea aurreko urtekoa baino askoz ere onuragarriagoa izan da Europar Batasunarentzat, 2005ean euroak 1,245 dolar balio baitzuen.

1.6 Taula. KPI EAEn, taldeka (2006)

	2006
Elikagaiak eta edari alkoholgabeak	3,0
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,6
Jantziak eta oinetakoak	1,7
Etxebizitza	4,0
Hornidura	3,5
Botikak	1,8
Garraioak	1,6
Komunikazioak	-1,5
Aisia eta kultura	-0,5
Hezkuntza	4,7
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	3,9
Bestelakoak	3,3
Orokorra	2,6

Oinarria 2006=100. Urtean zehar gertatutako bariazioa

Iturria: EIN

1.7 Taula. **Industriako prezioen indizea EAEn, jarduera-motaren arabera (2006)**

	2006
IPI Orokorra	5,0
IPI Erauzteko industriak	2,8
• Mineral metalikoak eta ez-metalikoak	2,8
IPI Manufaktura-industriak	4,4
• Janari-industria	3,9
• Ehungintza- eta jantzigintza-industria.....	6,9
• Larruaren eta oinetakoaren industria	2,6
• Zuraren industria.....	1,5
• Papergintza, argitalpenak eta industria grafikoak	3,4
• Petrolio findegiak	-4,8
• Industria kimikoa.....	3,5
• Kautxua eta plastikoa	3,9
• Industria ez-metalikoa.....	3,2
• Metalurgia eta elementu metalikoak.....	11,7
• Makineria	3,0
• Material elektrikoa.....	0,6
• Garraio-materiala.....	-2,5
• Bestelako manufakturak	1,3
IPI Energia elektrikoa, gasa eta ura	17,9
• Energia elektrikoa, gasa eta ura.....	17,9

Oinarria 2000=100. Abenduko urte arteko aldaketa.
Iturria: Eustat.

Industriako prezioei begiratzen badiegu, eta, zehatzago esanda, IPI edo Industriako Prezioaren Indizeari, ikusiko dugu menpeko jardueretako prezioen garapenak energia-prezioen joera lasaiagoa uzten duela agerian. Izan ere, 2005ean “koke eta petrolio finketa” eta “mineral metaliko eta ez-metaliko” jardueretako IPIa %30,8 eta %5,2 handitu zen hurrenez hurren; eta, 2006an, berriz, lehen jarduerako IPIa %4,8 gutxitu da, eta bigarrena, berriz, %2,8 bakarrik igo da.

1.2. LEGE-BERRIKUNTZAK: 2006AN EUROPAN, ESPAINIAN ETA EAE-N

1.2.1. Europako lege-berrikuntzak

a) Zuzentarauak:

Aire-garraioa
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko abenduaren 12ko 2006/93/CE zuzentaraua, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emana, nazioarteko abiazio zibilaren gaineko hitzarmeneko 16. eranskineko <i>hegazkinen erabilerari</i> buruzko erregulazioari buruzkoa, 1. liburukia, bigarren atala, 3. kapitulua, bigarren argitalpena (1988) (bertsio kodetua) (EEEari dagokion Testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 374 2006/12/27, 1./4. orrialdeak). • 2006ko apirilaren 5eko 2006/23/CE zuzentaraua, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emana, <i>aire-kontrolatzailearen Europako lizentziari</i> buruzkoa (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L114 2006/4/27 22./37. orrialdeak).
Errepide-garraioa
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko urtarrilaren 18ko 2006/1/CE zuzentaraua, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emana, <i>errepide-garraioan gidaririk gabeko ibilgailu alokatuen erabilerari</i> buruzkoa (bertsio kodetua) (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 33 2006/2/4, 82/85 orrialdea). • 2006ko otsailaren 17ko 2006/20/CE zuzentaraua, <i>motordun ibilgailuen eta haien atoiaren erregai-tanga eta atzeko aldeko babeserako tresnei</i> buruzko 70/221/CEE Kontseiluaren zuzentaraua aldatzen duena, prozesu teknikora egokitzeko (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 48 2006/2/18, 16./18. orrialdeak). • 2006ko martxoaren 2ko 2006/26/CE zuzentaraua, Kontseiluak emandakoa, <i>nekazaritzarako edo baso-lanetarako gurpildun traktoreei</i> buruzko Kontseiluaren 74/151/CEE, 77/311/CEE, 78/933/CEE eta 89/173/CEE zuzentarauak aldatzen dituena, hiru zuzentzarau horiek garapen teknikora egokitzeko (EEEari dagokion Testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 65 2006/3/7 22/26 orrialdeak). • 2006ko martxoaren 6ko 2006/28/CE zuzentaraua, Kontseiluak emandakoa, ibilgailuen <i>irradi-interferentziei</i> (bateragarritasun elektromagnetikoari) buruz Kontseiluak emandako 72/245/CEE zuzentaraua eta <i>motordun ibilgailuak eta atoiak homologatzeko</i> estatu kideen legislazioak aldatzeko 70/156/CEE zuzentaraua aldatzen dituena, garapen teknikora egokitzeko (EEEari dagokion Testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 65 7/3/2006, 27./29. orrialdeak). • 2006ko martxoaren 3ko 2006/27/CE zuzentaraua, Kontseiluak emandakoa, garapen teknikora egokitzeko honako hauek aldatzen dituena: kontseiluaren 93/14/CEE <i>bi edo hiru gurpileko ibilgailuen balazteari</i> buruzkoa, 93/34/CEE zuzentaraua, <i>bi edo hiru gurpileko ibilgailuen atzeko matrikula-plakaren muntaiari</i> buruzkoa, eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 95/1/CE zuzentaraua, <i>bi edo hiru gurpildun ibilgailuen lantegiko gehienezko abiadurari</i> buruzkoa eta haien motorren gehienezko potentziari buruzkoa, eta 97/24/CE zuzentaraua, <i>bi edo hiru gurpildun ibilgailuen ezaugarri eta elementu zehatz batzuei</i> buruzkoa (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 66 2006/3/8, 7./15. orrialdeak). • 2006ko martxoaren 15eko 2006/22/CE zuzentaraua, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emana, Kontseiluaren (CEE) 3820/85 eta (CEE) 3821/85 zenbakidun erregelamenduak aplikatzeko gutxieneko baldintzei buruzkoa, hain zuzen ere errepide-garraioari buruzko legislazio sozialari dagokiona eta Kontseiluaren 88/599/CEE zuzentaraua baliogabetzen duena (EEEari dagokion testua)- Adierazpenak (Europako Batasuneko Aldizkari ofiziala (DO L 102 2006//, 35./44. orrialdeak). • 2006ko ekainaren 6ko 2006/51/CE zuzentaraua, Kontseiluak emandakoa, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2005/55/CE zuzentzarauko I. eranskina eta 2005/78/CE zuzentzarauko IV eta V. eranskinak <i>ibilgailuetako isuriak kontrolatzeko sistemaren baldintzei</i> buruzkoak eta <i>gas-motorretan aplikagarriak diren salbuespenei</i> buruzkoak- aldatzen dituena garapen teknikora egokitzeko (EEEari dagokion Testua) (Europako Batasuneko Aldizkari ofiziala Do L 152 2006/6/7, 11./21. orrialdeak).

- 2006ko maiatzaren 17ko 2006/38/CE zuzentaraua, 1999/62/CE zuzentaraua, merkantziak garraiatzeko ibilgailu astunei azpiegitura zehatz batzuk erabiltzeagatik aplikatzen zaien zergari buruzkoa, aldatzen duena (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 157 2006/6/9 8/23 orrialdeak)
- 2006ko maiatzaren 17ko 2006/40/CE zuzentaraua, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emana, motordun ibilgailuetako aire girotutako sistemen isuriei buruzkoa, eta Kontseiluaren 70/156/CE zuzentaraua aldatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 161 2006/6/14, 12./18. orrialdeak).
- 2006ko abuztuaren 18ko 2006/72/CE zuzentaraua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 97/24/CE zuzentaraua -bi edo hiru gurpildun ibilgailuen elementu eta ezaugarri zehatzei buruzkoa- garapen teknikora egokitzeko aldatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 227 2006/8/19 43./45. orrialdeak).
- 2006ko azaroaren 3ko 2006/89/CE zuzentaraua, Kontseiluak emandakoa, 64/55/CE zuzentaraua -Estatu-kideek merkantzia arriskutsuak errepidez garraiatzeko eman beharreko legislazioari buruzkoa- seigarren aldiz garapen teknikora egokitzen duena (EEEari dagokion testua) (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 305 4/11/2006, 4./5. orrialdeak).
- 2006ko abenduaren 12ko 2006/94/CE zuzentaraua, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emana, errepide-garraioan gidaririk gabeko ibilgailu alokatuen erabilerari buruzkoa (bertsio kodetua) (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 374 2006/2/4, 5./9. orrialdeak).
- 2006ko otsailaren 27ko 2006/119/CE zuzentaraua, motordun ibilgailuen eta haien atoen erregai-tanga eta atzeko aldeko babeserako tresnei buruzko 2001/56/CE Kontseiluaren zuzentaraua aldatzen duena, prozesu teknikora egokitzeko (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 330 2006/11/28, 12./15. orrialdeak).
- 2006ko otsailaren 27ko 2006/120/CE zuzentaraua, motordun ibilgailuen eta haien atoen erregai-tanga eta atzeko aldeko babeserako tresnei buruzko 2005/30/CE Kontseiluaren zuzentaraua aldatzen duena, prozesu teknikora egokitzeko (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 330 2006/11/28, 16./17. orrialdeak).
- 2006ko abenduaren 20ko 2006/126/CE zuzentaraua, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emana, gida-baimenari buruzkoa (bategitea) (EEEari dagokion testua) (DO L 403 2006/12/30 18./60. orrialdeak).

Trenbide-garraioa

- 2006ko azaroaren 3ko 2006/90/CE zuzentaraua, Kontseiluak emandakoa, 64/55/CE zuzentaraua -Estatu kideek merkantzia arriskutsuak errepidez garraiatzeko eman beharreko legislazioari buruzkoa- zazpigarren aldiz garapen teknikora egokitzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 305 4/11/2006, 6./7. orrialdeak).

Itsas garraioa

- 2006ko abenduaren 12ko 2006/87/CE zuzentaraua, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emana, barne-nabigaziorako ontzien baldintza teknikoak ezartzen dituena eta Kontseiluaren 82/714/CE zuzentaraua baliogabetzen duena (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 389 2006/12/30 1./260. orrialdeak).
- 2006ko abenduaren 12ko 2006/137/CE zuzentaraua, barne-nabigaziorako ontzien baldintza teknikoak ezartzen dituena eta Kontseiluaren 82/714/CE zuzentaraua baliogabetzen duena (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 389 2006/12/30 261./263. orrialdeak).

Beste lege-berrikuntzak

- 2006ko azaroaren 20ko 2006/97/CE zuzentaraua, Bulgaria eta Errumania EBra atxikitzearen ondorioz merkantzien zirkulazio librearen esparruan zuzentarau batzuk egokitzen dituena (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 363 2006/12/20 107./128. orrialdeak).
- 2006ko azaroaren 20ko 2006/103/CE zuzentaraua, Bulgaria eta Errumania EBra atxikitzearen ondorioz merkantzien zirkulazio librearen esparruan zuzentarau batzuk egokitzen dituena (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 363 2006/12/20 344./351. orrialdeak).

Iturria: Erakunde honek egindakoa, Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala oinarritzat hartuta.

b) Araudiak:

Aire-garraioa
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko urtarrilaren 13ko (CE) 65/2006 zenbakidun Araudia, Kontseiluak emandakoa, 622/2003 (CE) zenbakidun araudia -aire-segurtasunerako arau orokorrak aplikatzeko neurriak ezartzen dituen- aldatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 11 2006/01/17 4./5. orrialdeak).
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko otsailaren 10eko (CE) 240/2006 zenbakidun Araudia, Kontseiluak emandakoa, 622/2003 (CE) zenbakidun araudia, aire-segurtasunerako arau orokorrak aplikatzeko neurriak ezartzen dituen aldatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 40 2006/02/11 3./4. orrialdeak).
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko martxoaren 22ko 473/2006 (CE) zenbakidun araudia, Kontseiluak emandakoa, Batasunean jardun ezin duten hegazkin-konpainien zerrenda aplikatzeko arauak ezartzen dituen. Zerrenda hori Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2111/2005 (CE) zenbakidun araudiko II. Kapituluari dago jasota (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 84 2003/02/23 8./13. orrialdeak).
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko martxoaren 22ko 474/2006 (CE) zenbakidun araudia, Kontseiluak emandakoa, Batasunean jardun ezin duten hegazkin-konpainien zerrenda aplikatzeko arauak ezartzen dituen. Zerrenda hori Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2111/2005 (CE) zenbakidun araudiko II. Kapituluari dago jasota (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 84 2003/02/23 14./28. orrialdeak).
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko maiatzaren 11ko 730/2006 (CE) zenbakidun araudia, Kontseiluak emandakoa, aire-espazioaren sailkapenari eta 195 hegaldi-mailatik gorako ikusi-hegaldirako araudiaren araberrako hegaldiei buruzkoa (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 128 2006/05/16, 3./4. orrialdeak).
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko maiatzaren 16ko 736/2006 (CE) zenbakidun araudia, Kontseiluak emandakoa, Aire Segurtasuneko Europako Agentziak aplikatu beharreko lan-metodoei buruzkoa (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 129 2006/05/17, 10./15. orrialdeak).
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko maiatzaren 19ko 768/2006 (CE) zenbakidun araudia, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2004/36/CE zuzentaraua, Batasuneko aireportuek hegazkinen segurtasunari buruzko informazioa biltzeari eta trukatzeari nahiz informazio-sistema kudeatzeari buruzkoa aplikatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala 2006/05/20, 16./18. orrialdeak).
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko urtarrilaren 2ko (CE) 831/2006 zenbakidun Araudia, Kontseiluak emandakoa, 622/2003 (CE) zenbakidun araudia aire-segurtasunerako arau orokorrak aplikatzeko neurriak ezartzen dituen- aldatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 150 2006/06/03 4./5. orrialdeak).
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko martxoaren 20ko 910/2006 (CE) zenbakidun araudia, Kontseiluak emandakoa, Batasunean jardun ezin duten hegazkin-konpainien zerrenda aplikatzeko arauak ezartzen dituen. Zerrenda hori Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 474/2006 (CE) zenbakidun araudiko II. Kapituluari dago jasota (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 2006/06/21 16./27. orrialdeak).
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko uztailaren 6ko 1032/2006 (CE) zenbakidun araudia, kontseiluak emandakoa, hegaldien datuak automatikoki trukatzeko sistema automatikoetan aire-zirkulazioaren kontrol-bulegoen arteko hegaldiak jakinarazi, koordinatu eta transferitzeko baldintzak ezartzen dituen (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 186 2006/07/07, 27./45. orrialdeak).
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko uztailaren 4ko 1033/2006 zenbakidun araudia, Kontseiluak emandakoa, europar zero bakarrean aurrehegaldi-fasean hegaldi-planen prozeduretan bete beharreko baldintzak ezartzen dituen (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 186 2006/07/07 46./50. orrialdeak).
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko uztailaren 5eko 1107/2006 (CE) zenbakidun araudia, Europako Batasunak eta Kontseiluak emandakoa, aire-garraioan mugikortasun gutxitua edo ezintasuna duten pertsonen eskubideei buruzkoa (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala 2006/07/26, 1./9. orrialdeak).
<ul style="list-style-type: none"> • 2006ko urtarrilaren 29ko (CE) 1448/2006 zenbakidun Araudia, Kontseiluak emandakoa, 622/2003 (CE) zenbakidun araudia -aire-segurtasunerako arau orokorrak aplikatzeko neurriak ezartzen dituen- aldatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 271 2006/09/30, 31./32. orrialdeak).

- 2006ko irailaren 28ko 1459/2006 (CE) zenbakidun araudia, Kontseiluak emandakoa, aireportuetako ordutegi-epreak ezarri eta aire-zerbitzu erregularretan bidaiariak garraiatzeko tarifei buruzko kontsultak egiteko hitzarmen eta praktikei buruzko Hitzarmeneko 81. artikuluko 3. atala aplikatzeari buruzkoa (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 272 2006/10/03, 3./8. orrialdeak).
- 2006ko martxoaren 12ko 1543/2006 (CE) zenbakidun araudia, Kontseiluak emandakoa, Batasunean jardun ezin duten hegazkin-konpainien zerrenda aplikatzeko arauak ezartzen dituen 474/2006 araudia aldatzen duena. Zerrenda hori Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2111/2005 (CE) zenbakidun araudiko II. Kapituluari dago jasota (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 283 2006/10/14 27./39. orrialdeak).
- 2006ko urriaren 4ko (CE) 1546/2006 zenbakidun Araudia, Kontseiluak emandakoa, 622/2003 (CE) zenbakidun araudia -aire-segurtasunerako arau orokorrak aplikatzeko neurriak ezartzen dituen- aldatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 286 2006/10/17 6./7. orrialdeak).
- 2006ko abenduaren 6ko 1794/2006 (CE) zenbakidun araudia, aire-nabigazioko zerbitzuetarako tarifak ezartzeko sistema orokorra ezartzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 341 2006/12/7, 3./16. orrialdeak).
- 2006ko abenduaren 15eko (CE) 1862/2006 zenbakidun Araudia, Kontseiluak emandakoa, 622/2003 (CE) zenbakidun araudia -aire-segurtasunerako arau orokorrak aplikatzeko neurriak ezartzen dituen- aldatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 358 2006/12/16 36./37. orrialdeak).
- 2006ko abenduaren 12ko 1899/2006 (CE) zenbakidun araudia, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandakoa, Kontseiluaren 922/91 zenbakidun araudia -abiazio zibilean aplikagarriak diren prozedura eta arau teknikoak bateratzeari buruzkoa- aldatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 377 2006/12/27, 1./175. orrialdeak).
- 2006ko abenduaren 12ko 1900/2006 (CE) zenbakidun araudia, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandakoa, Kontseiluaren 3922/91 zenbakidun araudia -abiazio zibilean aplikagarriak diren prozedura eta arau teknikoak bateratzeari buruzkoa- aldatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 377 2006/12/27, 176./175. orrialdeak).

Errepide-garraioa

- 2006ko martxoaren 15eko 561/2006 (CE) zenbakidun araudia, errepide-garraioko sektorean gizarte-gaietako xedapen zehatzak bateratzeari buruzkoa eta Kontseiluaren 3821/85 (CE) eta 2135/98 (CE) zenbakidun araudiak aldatzen dituenak eta Kontseiluaren 3820/85 (CEE) zenbakidun araudia balio gabetzen duena (EEEari dagokion testua) -Adierazpena (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 102 2006/04/11, 1./14. orrialdeak).
- 2006ko abenduaren 20ko 1986/2006 (CE) zenbakidun araudia, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandakoa, ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriak igortzeko eskumena duten Estatu kideen zerbitzuek bigarren belaunaldiko Schengen Informazio-Sistema (SIS II) erabiltzeari buruzkoa (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala 381 2006/12/28, 1./3. orrialdeak).

Trenbide-garraioa

- 2005eko abenduaren 23ko 62/2006 (CE) zenbakidun araudia, Kontseiluak emandakoa, Europa barneko ohiko trenbide-sistemako merkantzien garraiorako azpisistemarako aplikazio telematikoen jardungarritasunaren berezitasun teknikoei buruzkoa (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 13 2006/01/18, 1./72. orrialdeak).

Itsas garraioa

- 2006ko irailaren 6ko 1365/2006 (CE) zenbakidun araudia, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandakoa, barne-bide nabigagarrietako merkantzien garraioaren estatistikei buruzkoa eta Kontseiluaren 80/1119/CEE zuzentaraua balio gabetzen duena (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala 2006/09/25, 1./11. orrialdeak).
- 2006ko irailaren 25eko 1419/2006 (CE) zenbakidun araudia, 4056/86 (CEE) zenbakidun araudia, 4056/86 itsas garraioei Hitzarmeneko 58. eta 86. artikulua nola aplikatuko diren zehazten duena, balio gabetzen duena eta 1/2003 (CE) zenbakidun araudia -nazioarteko tramp zerbitzuak eta kabotajea ere aintzat hartzen dituen- aldatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 269 2006/09/28, 1./3. orrialdeak).

- 2006ko abenduaren 18ko 1891/2006 (CE) zenbakidun araudia, Europako Parlamentuak emandakoa, Itsas Segurtasuneko Europako Agentziak ontziek sortutako kutsaduraren aurka egindako jardueren hainbat urtetarako finantzaketari buruzkoa, eta 1406/2002 (CE) zenbakidun araudia aldatzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 394 2006/12/30, 1./4. orrialdea).

Beste lege-berrikuntzak

- 2006ko urriaren 24ko 1692/2006 (CE) zenbakidun araudia, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandakoa, bigarren Marco Polo programa ezartzen duena (Marco Polo II) merkantzien garraioak ingurumenean duen eragina hobetzeko Batasuneko diru-laguntzak esleitzeko eta 1382/2003 (CE) zenbakidun araudia baliogabetzen duena (EEEari dagokion testua) (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 328 2006/11/24, 1./13. orrialdeak).
- 2006ko azaroaren 20ko 1791/2006 (CE) zenbakidun araudia, Bulgaria eta Errumania atxikitzeagatik, honako hauei buruz bi araudi zehatz eta hainbat erabaki hartzen dituena: merkantzien zirkulazio askea, pertsonen zirkulazio askea, sozietateen eskubidea, lehiaren inguruko politika, nekazaritza (albaitaritza-araudia eta araudi fitosanitarioa barne), garraio-politika, zerga-sistema, estatistikak, energia, ingurumena, justizia eta herrizaingoko kooperazio-esparruak, aduanen batasuna, kanpo-harremanak, kanpo-politika, segurtasun orokorra eta erakundeak (DO L 363 2006/12/20, 1./80. orrialdea).
- 2006ko abenduaren 12ko 1942/2006 (CE) zenbakidun araudia, 1321/2004 (CE) zenbakidun araudia, Europako satellite bidezko irratir-nabigazio programaren kudeaketa-egiturei buruzkoa, aldatzen duena (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala DO L 367 2006/12/22, 18./20. orrialdeak).

Iturria: Erakunde honek egindakoa, Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala oinarri gisa hartuta.

1.2.2. Espainiako lege-berrikuntzak

Aire-garraioa

- Maiatzaren 5eko 547/2006 Errege Dekretua, Espainiako lurraldean aireportuak eta bestelako aerodromoak erabiltzen dituzten hirugarren herrialdeen hegazkinen segurtasunari buruzkoa. (Estatuko Aldizkari Ofiziala 113. zenbakia, 2006ko maiatzaren 21ekoa).
- Maiatzaren 5eko 550/2006 Errege Dekretua, Abiazio Zibileko Segurtasun Programa Nazionala koordinatu eta haren jarraipena egiteko erakunde eskuduna izendatzen duena eta Abiazio Zibileko Segurtasun Batzorde Nazionalaren antolakuntza eta funtzioak zehazten dituena. (Estatuko Aldizkari Ofiziala 113. zenbakia, 2006ko maiatzaren 12koa).

Errepide-garraioa

- Urriaren 27ko 1225/2006 Errege Dekretua, Lehorreko Garraioa Antolatzeko Legearen Erregelamendua, irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretu bidez onartua, aldatzen duena (Estatuko Aldizkari Ofiziala 273. zenbakia, 2006ko azaroaren 15ekoa).
- Maiatzaren 5eko 551/2006 Errege Dekretua, Espainiako Estatuan merkantzia arriskutsuen errepideko garraioa arautzen duena (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 113. zenbakia, 2006ko maiatzaren 12koa).

Trenbide-garraioa

- Martxoaren 29ko 354/2006 Errege Dekretua, Europa barneko ohiko trenbide-sistemako jardungarritasunari buruzkoa. (Estatuko Aldizkari Ofiziala 89. zenbakia, 2006ko apirilaren 7koa).
- Martxoaren 29ko 355/2006 Errege Dekretua, Europa barneko abiadura handiko trenbide-sistemako jardungarritasunari buruzkoa. (Estatuko Aldizkari Ofiziala 89. zenbakia, 2006ko apirilaren 7koa).

Iturria: Erakundeak berak egindakoa, Sustapen Ministerioaren informazioan oinarrituta.

1.2.3. EAEko legegintza-berrikuntzak

Errepide-garraioa

- Martxoaren 21eko 66/2006 Dekretua, Araba Logistika S.A. Sozietatearen kapitala handitzean EAEko Administrazioak duen parte-hartzeari buruzkoa (EHAA 2006/03/30).



- Uztailaren 18ko 158/2006 Dekretua, EAeko Administrazioari Bizkaiko Kamioen Kokaleku Bortxatuak A.B, Aparcamiento Disuasorio de Camiones de Bizkaia S.A. (Bikakobo-Aparcabisa) sozietatearen kapitalaren gehikuntzan parte hartzeko baimena ematen diona (EHAA 2006/07/27)

Trenbide-garraioa

- Ekainaren 6ko 118/2006 Dekretua, Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A sozietatearen kapitala hainbat ekarpen itzuliz gutxitzea baimentzen duena eta Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari alde aurreko trenbide-azpiegituren administrazioa esleitzen diona (EHAA 2006/06/30).
- Ekainaren 27ko 139/2006 Dekretua, Gasteizko tranbiaren ustiapena «Eusko Trenbideak /Ferrocarriles Vascos, S.A.» sozietate publikoari esleitzekoa (EHAA 2006/07/06).
- Ekainaren 27ko 140/2006 Dekretua, Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A sozietate publikoaren kapitala murriztea onartzen duena eta haren estatutu sozialak aldatzen dituen (EHAA 2006/07/10).

Itsas garraioa

Urtarrilaren 17ko 8/2006 Dekretua, Estatuko administrazio orokorrak Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan duen batzarkidea kendu eta beste bat izendatzeko, eta kontseilu berean Euskal Autonomia Erkidegoak duen batzarkide bat kendu eta beste bat izendatzeko dena (EHAA 2006/01/25).

Iturria: Erakundeak berak egindakoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Eusko Jaurlaritza.